

SANTI ONAINDIAREN PROFEZIA

Atseginez irakurri nuen Euskaltzaindiaren *Plazaberri* aldizkarian Jabier Kaltzakortak *Antonio Zabalaren omenetan eta ohoretan* izeneko idazlanean dioena:

Auspoa hasi berri hartan, 1961. urte ingurutsuan, baserritar batek hitz mingarri batzuk esan omen zizkion Antonio Zabalari. Gutxi gorabehera honelaxe esan zion: "Auspoako lehen alea erosi dudanean txakurkume baten jabe ere egin naiz, eta izena ere Auspoa jarri diot. Txakurtxo erosi eta egun gutxira hil zait ordea, eta zure liburu horiek ere ez dute aurrera segituko".

Eta gogoeta eginez, hau dio Jabier Kaltzakortak: *Gaur eguneko distantzian esan dezakegu baserritar hark pentsamendu magikoa zeukala eta kolkoan gorde beharrean braustakoan bota zuela barruan gorde beharrekoa. Baina, zorionez, ez zuen asmatu [...].*

Hori irakurtzean, A. Santi Onaindiarekin niri neuri gertatutakoa etorri zitzaidan gogora. Honela agertzen dut *Nire Sasoiko Markina-Xemein* liburuan:

Larrean ia bertakotuta edo ekanduta nengoan, baina hangoa aldi baterako izango zalakoa neukan. Hori zan asmoa Begoñatik beste komentuetara hustu ginduezanean... Hiru bat hilabete neroiazan han eta egun baten Gasteiztik Probintzialak eginiko eskutitza jaso neban. Markina-Xemeingo komentura bidaltzen ninduala ziraustan.

Aurrez buruan sartuta neukan, Zornotzako Larrea bera edo Markina-Xemein izan eitekeala niretzako modukoa. Beraz, ez ninduan harritu Probintzialaren erabagiak. Ondo hartu neban. Alboan bazan erabagi ha okertzat jo ebanik: Santi Onaindiak bere ondoan nahi ninduan. Euskal letretan bidelagun izango nintxakolako ametsak zerabiltzan... Bazkal ostean polito asaskatu zan. Ametsa zapuztu izanak eraginiko sumendi-zulotik bota zituan ahokada batzuk, profezia antzera: Markinan ez haz ezer izango; han hegoak mozturiko txoria izango haz. Sermolariak, idazleak, olerkariak... hemen egiten dituk, Larrean!

Berbak ez dakit honeek ziran, baina ideia behintzat zehatz-mehatz hauze zan. Nik profezia antzera esaniko hareek ezeztatu nahi nituan. Senak emon eustan, Markina-Xemeinen neure lekua aurkitu eta aurrera egingo nebala...

Eta bai! Aurrera egin dugu, Euskaltzaindiaren izendapen honek erakusten duenez. 70eko hamarkadan hasita batez ere, apurka-apurka geure euskal baratzea landuz joan gara. Euskal hiztegietan, itzulpenetan, bertsolaritzan, irakaskuntzan, *Karmel* aldizkariko idazlanetan... ahalegindu gara. Dena dela, Antonio Zabalaren jazorikoa baserritarrarekin eta nire jazorikoa Santi Onaindiarekin bata bestearen ondoan ezartzeak, ez du esan nahi guk geure burua haren parean ezartzen dugunik, ezta hurrik eman ere. Gure jarduera euskal arloan harenaren aldean oso apala da. Auzolanean jardun dugu gehienetan. Aurrera egin ahala, gidari onak eta bidelagun finak aurkitu ditugu. Horiek guztiak gogoan ditudala, eskerririk asko Euskaltzaindiari eta hemen zareten guztioi!

Luis Baraiazarra Txertudi
Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan (2010-02-26)